



## **PROIEKTUAREN SORBURUAK**

1999an France 3rako egindako erreportaje batetik aurrera hasi zen guztia. Bertan, elkarlanean aritu nintzen Robin Campilloarekin, nirekin batera gidoia egin zuenarekin, telebistarako muntatzaile zela. Nobelagile ingeles batek idazketa tailer bat zuzentzen zuen La Ciotat-en. "Mission Locale"<sup>1</sup> erakundearen ideia bat zen, hamar gazte biltzea eta elkarrekin batera nobela bat idaztea, baldintza bakar batekin: hirian bertan garatutako istorio bat izan behar zuen.

Orduan pentsatu genuen pelikulan. La Ciotat ez zen oraindik suspertu ontziola itxi izanaren ondorioetatik. 1987-88an itxi zuten ofizialki, baina langile askok urteetan zehar okupatu zuten behin betiko ixtea eragozteko. Dokumentalean, gazteek nahiko harreman nostalgikoa zuten, bizia ordea, hiriko langile kulturarekin. Liburuaren gaia izango ziren oroimenen oinordekotzat ikusten zituzten euren buruak.

Bertan behera utzi genuen proiektua. Eta hamasei urte geroago itzaletik ateratzea erabaki nuen, langileen istorio hori oraingo gazteentzat historiaurrea-edo zela konbentzituta. Entzun izan dute euren gurasoen borrokaz, jakina. Ontziolatik gertu bizi dira, edo hobe esanda bertatik geratu diren arrastoetatik, yateak konpontzeko birgaitu baitute lekua. Hala, kostaldeko konplexu turistiko bihurtzea erabaki zenetik, bizkarra eman dio hiriak ontziolari: dekoratu ikaragarri bat besterik ez da, begiratzeaz ere inor arduratzen ez dena.

Gizarte baten, kultura baten erabateko mutazioa aditzera ematen digu filmak; krisi ekonomikoek eta politikoez bultzatuta, ahaztuta dute dagoeneko mundua lehen zen bezala, "zaharrek" ere ikusten jarraitu nahiko luketena. Idazketa tailerreko gazteek argi dute ez dutela parte izan nahi dagoeneko haiena ezin izan daitekeen historia batean. Oso bestelako arazoei egiten ari zaie aurre. Leku bat bilatu beharrean izaten dira aintzat hartzen ez dituzten mundu batean, inguruan geratzen dena euren kontrolpean ez dagoela ikusten dute, ezta euren bizitza bera ere. Apustu sozial eta politiko kezkarrirenen –prekarietatea, terrorismoa, muturreko eskuinaren goraldia– urratu duten gizarte bortitz baten aurrean daude.

## **ANTZEZLE GAZTEEKIN LAN EGITEA**

Gidoiaren lehenengo bertsioa amaitzean, "neurrik gabeko" casting bat egin genuen kiroldegietan, antzerki zentroetan, institutueta irteeran, tabernetan... Inguruko ehunka gazte ezagutu nituen eta haien artetik hautatu nituen antzezleak. Ondoren, "tailer" bat antolatu nuen, bi astez, haien esperientziarekin eta nortasunarekin filma elikatze asmoz. Eszenak gutxika joan ziren joritzen. Beste hitz batzuetan esanda, inoiz ez zuten euren papera buruz ikasi, paperean bertan sartu ziren. Prestalaneke une hartan sortu ziren trukeek aldarazi egin zuten idazketa.

Nire filmetan beti saiatzen naiz pertsonaiei behar adina tarte ematen esleitu zaien zereginetik harago joan daitezen. Zinegile naizen aldetik, eta ikusle naizen aldetik ere, pertsonaia batengandik gertu sentitzeko behar adina autonomia izan behar du gidoiaren premia soiletik irten ahal izateko. Horregatik tematzen naiz beti hasieratik bukaeraraino eszena guztiak kamera batekin baino gehiagorekin filmatzen, etenik egin gabe. Horrela bakarrik sortzen dira, noizbehinka, aurreikusita ez zeuden gauzak.

---

<sup>1</sup> Mission Locale: Hirietako erakunde estatala 16 - 25 urte bitarteko gazteei lana bilatzen laguntzen diena.

Adibidez, Boubacarren eta Antoineren arteko sesioa ez zegoen gidoian jasota; Matthieu Luccik (Antoine), ordea, egoera hartan bere pertsonaiak arakatu egin behar zuela sumatu zuen. Harri eta zur geratu ginen guztiok salto batez altxatu zenean, Boubacar erasotzeko prest. Kamerak ez zion jarraitu, eta berriro hasi behar izan genuen. Metodo horrek sorrarazitako beste "gorabehera" bat: Matthieuk, agur-testua irakurri eta gero, dio: "Bueno ba, agur". Hori ere ez zegoen idatzita, baina une hartan keinu teatral bat egin beharra zuela sentitu zuen. Malkoz blaitu zitzaizkidan begiak. Halako gauzak ez dira gertatzen planoarekin eta kontraplanoarekin lan egiten duzunean, bakoitzak ikasita dituen bere elkarrizketarekin eta mugimenduekin. Antzezleei autonomia eskaintzen dien metodo bat da, eszenaren, pertsonaiaren logikan egotea ahalbidetzen die, eta ez bakarrik pelikularen logikan.

## **IDAZKETA TAILER BAT**

Tailer honekin, idazketarako ibilbidea erakutsi nahi izateaz gainera, ezeren gainetik, elkarrekin batera pentsatzeak eta ados jartzeak eskatzen duten ahalegin nekeza hori erakutsi nahi nien. Hau da, lan-dinamika bat, tentsioekin, irteerarik ez duten kale itsuekin, konpromisoekin eta bitarteko soluzioekin.

Asko interesatzen zait ikustea hezkuntza beti dela azkenean formateo antzeko zerbait, prestakuntza ematen zaienak zuzenean ez dagokien gauzetan interesatzera eramaten dituen orientazio antzeko bat. Horrekin ez dut esan nahi saihestezina bezain eraginkorra ez denik, baina nire ustez garrantzizkoa da hezkuntzaz arduratzen direnak gertatzen denaz jabetzea. Izan ere, Antoinetik, pelikulako pertsonaia nagusiak, Olivieri leporatzen dion hori da: idatzi behar dutenari buruz aurrez ezarritako ideia batekin etorri da Parisetik.

## **BEGIRADA BAT ORAINGO GAZTERIARI**

Hutsalkeria eman dezake nolabait, baina nire ustez asperdura da belaunaldi honek bizi dituen arazoetako askoren iturria, perspektibarik ezarekin lotzen bada batik bat. Nire susmoa da gero eta gazte gehiago daudela sinetsita euren halabeharra idatzita dagoela eta ez datorrela bat dituzten itxaropenekin. Gainera, nola mantendu dezake batek gogo bizia, bere bizitza kontrolatzeko behar den indarra? Are gehiago, zertarako saiatu egun santu guztian errepikatzen bazaie edozein gauza gertatuta ere ez garela hemendik irtengo?

Gidoia idazten hasi ginenean, albiste nagusia zen armadan sartzen zirenen kopurua gero eta gehiago handitzen ari zela egunetik egunera. Antoine begira ari den klipak (armada frantsesak ekoiztutako benetako klip bat) bideo-jokoek kodea erabiltzen du; badaki nori zuzentzen ari zaion eta abentura bat eskaintzen da, askorentzat eskuragarri duten bakarra ziurrenik. *Klaseko* gazte batzuk asmo horrekin zenbiltzaten jadanik eta armadako edo poliziako kide egin ziren. Ia irtenbide bakarra da gazte askorentzat; haien leialtasuna erakusteko modu bat, eta frantses onak izatekoa.